



MUSIKA

Schubert handia

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Aurreko artikuluan aurreratu nuen, Euskadiko Orkestrak hainbat erabaki hartu ditu bere publikoa segurtasunez, aniztasunez eta kalitatez berriro harrapatzeko.

Orkestraren denboraldi honen hasieraren ezaugarri nagusia saio bikoitzaren planteamendua izan zen, abonatuaren erdiak kontzertuetako batera joatea ahalbidetzen duena. Schuberti saioa eskaintzea ere datu interesgarria izan zen. Euskadiko Orkestraren abonatu-kontzertuetan ez da ohikoa maratoi monografiakoak eskaintzea eta, horregatik, hasiera-ko programa honek pizgarria zuen.

Musika kontuetan sartu aurretik, kontzertuko giroa aipatu behar da. Zalantzarik gabe, denok nahi genuen kontzertu-ziklotara itzultzea, musika zuzenean sentitzea, interpretazio on batekin gozatzea. Baina aitortu behar dut saioaren hoztasuna –musikarekin zerikusirik ez zuena– samingarrria zela, nahiz eta agian adjektibo hau gehiegizkoa izan. Kontzertu batek badu zerbaiteko komunitate, komunikaziotik, eta hau guztia gutxitzen da ia hutsik dagoen antzoki batean, edo orain existitzen ez diren atsedendietan komentarioak egiteko ezintasunaren ondorioz... Tira, iritsiko da eguna, hau guztia aldatuko da.

Benetan garrantzitsua dena itzu-



JON USUAL / EUSKADIKO ORKESTRA

liz, musikara hain zuzen ere, Euskadiko Orkestraren Schuberten sinfonien interpretazioa nabarmena izan zen, nahiz eta zertxobait irregularra.

9. sinfonia, orokorrean, zirrargarria goa izan zen, erritmo zehatzagoz eta indar handiagoz eramana. Aitzitik, 3. sinfonia nahiko laua geratu zen, lan honen berezitasunak kontuan hartuta. *Allegretto*-aren xarma oharkabea izan zen, eta azken *Menuetto*-aren erritmo markatuak, azentu zakarrez beteak, ez zuen behar besteko bizitasunik izan.

Hala ere, orkestrak giharra erakutsi zuen 9. sinfonian, "Handia", do maiorrean D944 obran. Sinfonia hau, XIX. mende amaierako distiratsuenetako bat da. Bitxia bada ere, Schumann konpo-

SCHUBERT-EN 3. ETA 9. SINFONIAK EUSKADIKO ORKESTRA ZUZENDARIA: ROBERT TREVIÑO

GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA
IRAILAK 25

sitoreak aurkitu zuen obra hau paper pila desordenatu baten artean, Schubert bera hil eta hamar urtera. Nabarduren aberastasun izugarria du, eta Euskadiko Orkestrak eta Robert Treviñoren batutak balioan jartzen jakin zuten.

Saio ona, laburbilduz. Gustura atera zen publikoa. ●

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

LUA arkitektoak

ARKITEKTURA eta HIRIGINTZA
www.luark.com
948132997 - Arga ibara kalea 25 30 trinla